

ITSASOKO ERREGIMEN BEREZIKO LEHEN TALDEKO LANGILE AUTONOMOEN KOTIZAZIO BERRIA



GOBIERNO
DE ESPAÑA

MINISTERIO
DE INCLUSIÓN, SEGURIDAD SOCIAL
Y MIGRACIONES

SECRETARÍA DE ESTADO
DE LA SEGURIDAD SOCIAL
Y PENSIONES



INSTITUTO SOCIAL
DE LA MARINA

AURKIBIDEA



Sarrera

Itsasoko zein langileri eragiten die etekinengatiko kotizazio-sistemak?

Zein da etekinengatiko kotizazio-sistemaren helburua?

Nola zehazten da Gizarte Segurantzako kotizazio-oinarria?

Zein kotizazio-oinarri aplikatuko zaie 2022ko abenduaren 31n alta-egoeran dauden langile autonomoei, 2023an behin-behineko kotizazio-oinarririk aukeratzeko ez badute?

Zer kotizazio-oinarri aukeratu ahal izango du langile autonomoak, bere diru-sarrerak taula orokorreko 1. tartearen gutxieneko oinarria zehazten dutenak baino txikiagoak izango direla aurreikusten badu?

Jarrai al daiteke etekinen arabera legokioketena baino oinarri handiagoarekin kotizatzen?

Zer kotizazio-mota aplikatzen zaio kotizazio-oinarriari?

Noiz aurkeztu behar da aurreikusitako etekin ekonomiko garbien informazioa?

Nola aurkez dezaket aurreikusitako etekin ekonomiko garbien informazioa?

Aukeratutako kotizazio-oinarriak behin betikoak dira?

Nola alda daiteke kotizazio-oinarria?

Zertan datza erregularizazioa?

Nola erregularizatzen dira kotizazio-oinarriak?

Zer gertatzen da Zerga-Administrazioek egindako etekinen ondorengo aldaketekin?

Zein kasutan ez dira erregularizatzen kotizazio-oinarriak?

Araudia


SARRERA

Itsasoko Erregimen Bereziko lehenengo kotizazio-taldeko norberaren konturako langileei aplikatzen zaien kotizazio-sistemak, zeinaren bidez langileari bere kotizazio-oinarria hautatzeko aukera ematen zaion, norberaren kontura egindako jardueratik lor ditzakeen etekinak alde batera utzita, gaur egun gehienek ezarrita duten gutxieneko kotizazio-oinarria aukeratzea ekarri du, bere jardueratik lortzen dituzten etekin errealak alde batera utzita.

Lehenengo kotizazio-taldeko langile autonomoak aukeratutako kotizazio-oinarriak jasoko duen sistemaren prestazioen zenbatekoa zehazten duela kontuan hartuta, emaitza da langile hauen batez bestekoak prestazio baxuagoak jasotzen dituela, besteren konturako langileen batez bestekoak baino, esate baterako, benetako ordainsarien arabera kotizatzen baitute.

Horretarako, pentsio-sistemaren finantza-iraunkortasunak eskatzen zuen, pixkanaka eta norberaren konturako langileen kolektiboaren askotariko egoeretara egokituz, norberaren konturako langileen edo langile autonomoen kotizazio-oinarriak beren diru-sarrera errealetara hurbiltzeko neurriak sustatzea, elkarriketa sozialaren esparruan.

Behar honi erantzuteko, uztailaren 26ko 13/2022 Errege Lege Dekretua onartu zen, norberaren konturako langileentzako edo langile autonomoentzako kotizazio-sistema berria ezartzen duena eta jarduera uzteagatiko babesa hobetzen duena. Benetako etekin garbiak kontuan hartzen dituen kotizazio-sistema berri honekin, aurrera egiten da Itsasoko Erregimen Bereziko lehenengo kotizazio-taldeko norberaren konturako langileen etorkizuneko



ITSASOKO ZEIN LANGILERI ERAGITEN DIE ETEKINEN KOTIZAZIO-SISTEMAK?

Etekinengatik kotizazio-sistema berria Itsasoko Erregimen Bereziko lehenengo kotizazio-taldeko norberaren konturako langileei soilik aplikatzen zaie.

Erreforma hau ez da Itsasoko Erregimen Bereziko bigarren eta hirugarren kotizazio-taldeetako norberaren konturako langileei aplikatzekoa, hauek Gizarteratze, Gizarte Segurantzza eta Migrazio Ministerioaren Aginduz urtero zehaztutako kotizazio-oinarri finkoengatik kotizatzen jarraituko baitute.

ZEIN DA ETEKINEN KOTIZAZIO-SISTEMAREN HELBURUA?

Itsasoko Erregimen Bereziko lehen kotizazio-taldeko norberaren konturako langileen urteko etekin garbien araberako kotizazio-sistema bat ezartzea, beraien etorkizuneko prestazioen zenbatekoa hobetzeko.

Ezarpena:

- Hasiera **2023ko urtarrilaren 1ean**.
- Iragankortasuna **9 urtez** (berrikuspenak 3 urtez behin: 2023-2025, 2026-2028, 2029-2031).
- Aplikazio **osoa 2032tik aurrera**.

NOLA ZEHAZTEN DA GIZARTE SEGURANTZAKO KOTIZAZIO-OINARRIA?

Kotizazio-oinarriak urtero ezarriko dira Estatuko Aurrekontu Orokorren Legean. Itsasoko Erregimen Bereziko lehenengo kotizazio-taldeko norberaren konturako langileek, 2023ko urtarrilaren 1a baino lehen altan bazeuden, 2023ko urriaren 31ra arteko epea izango dute etekin ekonomikoen aitorpena jakinarazteko.

- Oinarri bat aukeratu beharko da, urte natural bakoitzean lortutako etekin garbien zenbatekoen hileko batez bestekoaren aurreikuspenaren arabera, dagokion tartearen gutxieneko oinarriaren eta gehieneko oinarriaren mugen barruan.
- Diru-sarreraren aurreikuspena aldatzen bada, oinarria aukeratzeko kontuan hartu zen diru-sarreraren tarteari dagokionez, kotizazio-oinarria aldatu beharko da.

2023., 2024. eta 2025. urteetarako 15 etekin-tarte daude ezarrita, dagozkien gutxieneko eta gehieneko kotizazio-oinarriekin.



ETEKIN GARBIAK			2023		2024		2025	
			GUTXIENEOA	GEHIENEOA	GUTXIENEOA	GEHIENEOA	GUTXIENEOA	GEHIENEOA
TAULA MURRIZTUA	TARTEA 1	<= 670	751,63	849,66	735,29	816,98	653,59	718,94
	TARTEA 2	> 670 y <= 900	849,67	900	816,99	900	718,95	900
	TARTEA 3	> 900 y <= 1.166,70	898,69	1.166,70	872,55	1.166,70	849,67	1.166,70
TAULA OROKORRA	TARTEA 1	> 1.166,70 y <= 1.300	950,98	1.300	950,98	1.300	950,98	1.300
	TARTEA 2	> 1.300 y <= 1.500	960,78	1.500	960,78	1.500	960,78	1.500
	TARTEA 3	> 1.500 y <= 1.700	960,78	1.700	960,78	1.700	960,78	1.700
	TARTEA 4	> 1.700 y <= 1.850	1.013,07	1.850	1.045,75	1.850	1.143,79	1.850
	TARTEA 5	> 1.850 y <= 2.030	1.029,41	2.030	1.062,09	2.030	1.209,15	2.030
	TARTEA 6	> 2.030 y <= 2.330	1.045,75	2.330	1.078,43	2.330	1.274,51	2.330
	TARTEA 7	> 2.330 y <= 2.760	1.078,43	2.760	1.111,11	2.760	1.356,21	2.760
	TARTEA 8	> 2.760 y <= 3.190	1.143,79	3.190	1.176,47	3.190	1.437,91	3.190
	TARTEA 9	> 3.190 y <= 3.620	1.209,15	3.620	1.242,83	3.620	1.519,61	3.620
	TARTEA 10	> 3.620 y <= 4.050	1.274,51	4.050	1.307,19	4.050	1.601,31	4.050
	TARTEA 11	> 4.050 y <= 6.000	1.372,55	4.495,50	1.454,25	4.495,50	1.732,03	4.495,50
	TARTEA 12	> 6.000	1.633,99	4.495,50	1.732,03	4.495,50	1.928,10	4.495,50

ZEIN KOTIZAZIO-OINARRI APLIKATUKO ZAI E 2022KO ABENDUAREN 31N ALTA-EGOERAN ZEUDEN LANGILE AUTONOMOEI, 2023AN BEHIN-BEHINEKO KOTIZAZIO-OINARRIRIK AUKERATZEN EZ BADUTE?

Langile autonomoak behin-behineko kotizazio-oinarri bat aukeratzen ez duen bitartean, 2023. urtean urte horretako urtarrilean legokiokkeen oinarriaren arabera kotizatuko du, 2022ko abenduako kotizazio-oinarriaren arabera, edo, hala badagokio, 2022ko abenduaren 31 baino lehen eskatutako aldaketak oinarri horri aplikatzearen ondoriozko kotizazio-oinarriaren arabera.

Kotizazio-oinarri hori behin-behineko kotizazio-oinarri izango da kuotak erregularizatzeko prozeduraren ondorioetarako.



ZER KOTIZAZIO-OINARRI AUKERATU AHAL IZANGO DU LANGILE AUTONOMOAK, BERE DIRU-SARRERAK TAULA OROKORREKO 1. TARTEAREN GUTXIENeko OINARRIA ZEHAZTEN DUTENAK BAINO TXIKIAGOAK IZANGO DIRELA AURREIKUSTEN BADU?

Taula orokorreko 1. tarteko gutxieneko oinarria baino kotizazio-oinarri txikiagoa aukeratu ahal izango du, Estatuko Aurrekontu Orokorraren Legean horretarako urtero zehaztuko den oinarrien taula murriztuaren barruan.

Oinarri hauek behin-behinekoak izango dira, harik eta lortutako etekin garbi errealean arabera erregularizatzen ez diren arte, hileko batez bestekoan, Zerga-Administrazioek hurrengo ekitaldian jakinarazi ondoren.

JARRAI AL DAITEKE ETEKINEN ARABERA LEGOKIOKEENA BAINO OINARRI HANDIAGOAREKIN KOTIZATZEN?

Baldin eta, 2022ko abenduaren 31n, beren errendimenduengatik legokiekeena baino kotizazio-oinarri handiagoarekin kotizatzen badute, kotizazio-oinarri horri eutsi ahal izango

diote, edo oinarri hori baino txikiagoa den oinarri batekin, nahiz eta haien etekinek horietako edozein baino kotizazio-oinarri txikiagoa aplikatzea ekarri.

ZER KOTIZAZIO-MOTA APLIKATZEN ZAIKOTIZAZIO-OINARRIARI?

Kotizazio-oinarriari, oro har, Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legean urtero onartutako kotizazio-tasak aplikatuko zaizkio. 2023. urterako kotizazio-tasak honako hauek dira:

KONTINGENTZIA	KOTIZAZIO MOTA
Kontingentzia arruntak	28,30%
Lanbide heziketa	0,10%
Jardueraren amaiera	0,90%
Kontingentzia profesionalak – AKOrako eskubiderik gabe	1,30%
Kontingentzia profesionalak – AKOrako eskubidearekin	7,15%




NOIZ AURKEZTU BEHAR DA AURREIKUSITAKO ETEKIN EKONOMIKO GARBIEN INFORMAZIOA?

2023ko urtarrilaren 1etik aurrera, langile autonomoek beren etekinak aitortzeko betebeharra izango dute, 2023ko urtarriletik kotizatu den kotizazio-oinarrien batez bestekoa urte horretan lortzea aurreikusten den etekin-tarteari esleitutako gutxienekoaren eta gehienekoaren artean ez dagoela uste denean.

Data horretatik aurrera alta ematen duten langile autonomoek alta-prozesuan eskatuko dute informazio hori.

Autonomoa jada alta emanda badago, aurreikusitako errendimenduak 2023ko urriaren 31 baino lehen aitortu beharko dira, oinarria aldatzea dakarren ala ez kontuan hartu gabe.



NOLA AURKEZ DEZAKET AURREIKUSITAKO ETEKIN EKONOMIKO GARBIEN INFORMAZIOA?

Gizarte Segurantzaren web orrian eskuragai dagoen “Langile Autonomoentzat aurreikusitako sarrera garbien aitorpena”(IEB) betez. Beta eta gero, bi bideen bitartez aurkeztu ahal izango duzu.

1 Telematikoki Gizarte Segurantzako Egoitza Elektronikoaren bidez *“Beste idazki,eskaera eta jakinarazpenen aurkezpena(Itsasoko Gizarte Institutua)”*,Herriarrak/Itsasoaren Erregimen Berezia atalean kokatua.

2 Presentzialki Itsasoko Gizarte Institutuaren tokiko zuzendaritza edo zuzendaritza probintzial batean

AUKERATUTAKO KOTIZAZIO-OINARRIAK BEHIN BETIKOAK DIRA?

Ez, behin-behinekoak izango dira, harik eta, hurrengo urtetik aurrera, Zerga-Administrazioek Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiari telematikoki jakinarazten dizkioten arte urteko etekin garbiak efektiboak, eta honek

kuotak erregularizatzeko prozesua egiten duen arte.

NOLA ALDA DAITEKE KOTIZAZIO-OINARRIA?

Urtean 6 aldiz gehienez eska dezakezu oinarri aldaketa, etekin garbien hileko batez bestekoaren aitortpena aurkeztuz. Ondorioak eskatzen diren daten arabera izango dira:

ESKAERA	ONDORIOAK
Urtarrila eta otsaila	MARTXOA
Martxoa eta apirila	MAIATZA
Maiatza eta ekaina	UZTAILA
Uztaila eta abuztua	IRAILA
Iraila eta urria	AZAROA
Azaroa eta Abendua	HURRENGO URTEKO URTARRILA

Urte bakoitzaren barruan aukeratutako hileko kotizazio-oinarriak behin-behinekoak izango dira bere erregularizazioa arte.



ZERTAN DATZA ERREGULARIZAZIOA?

Prozesu horren bidez, behin betiko kotizazio-oinarriak zehazten dira, eta aurreko urteko behin-behineko

oinarrien hileko kotizazioak doitzen dira.

NOLA ERREGULARIZATZEN DIRA KOTIZAZIO-OINARRIAK?

Erregularizazioa urteko etekin arabera egingo da, Zerga-Administrazioek hurrengo urtetik aurrera lortu eta telematikoki jakinarazi ondoren. Etekin konputagarria Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren araudian urteko etekin garbia kalkulatzeko aurreikusitakoaren arabera kalkulatu da.

Etekinen zenbatekoa finkatu ondoren, proportzionalki banatuko da erregularizatu beharreko aldian, eta hileko behin betiko kotizazio-oinarriak zehaztuko dira, eta langile bakoitzak bere kontura edo autonomo gisa aurreko urtean egindako hileko behin-behineko kotizazioa erregularizatuko da, betiere bere behin betiko kotizazio-oinarria ez badago sartuta gutxieneko kotizazio-oinarriaren eta etekinak barne hartzen dituen tarteari dagokion gehieneko kotizazio-oinarriaren artean.



• **Egindako behin-behineko kotizazioa etekinak barne hartzen dituen tartearen gutxieneko kotizazio-oinarriari dagokion kuota baino txikiagoa bada:**

- Aldeak langileak ordaindu beharko ditu.
- Epea: jakinarazi eta hurrengo hilaren azken egunera arte, errekar gurik eta berandutze-interesik aplikatu gabe.

• **Egindako behin-behineko kotizazioa etekinak barne hartzen dituen tartearen gehieneko kotizazio-oinarriari dagokion kuota baino handiagoa bada:**

- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak gehiegizkoa ofizioz itzuliko du, berandutze-interesik ordaindu gabe.
- Epea: Zerga-Administrazioek etekin konputagarriak Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiari jakinarazi eta hurrengo ekitaldiko apirilaren 30a baino lehen.

Behin betiko kotizazio-oinarria zehaztuta, behin-behineko kotizazio-oinarrien arabera kalkulaturako borondatezko aldian ordaindu gabeko kuotek sortutako zorrak ez dira itzuliko edo aldatuko.

• **Behin betiko kotizazio-oinarria zorra sortu zuen behin-behineko kotizazio-oinarriaren zenbatekoa baino handiagoa bada:**

- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak zorra erreklamaturiko du.
- Langileak aldeak ordaindu beharko ditu, errekar gurik eta berandutze-interesik aplikatu gabe.

• **Behin betiko kotizazio-oinarria zorra sortu zuen behin-behineko kotizazio-oinarriaren zenbatekoa baino txikiagoa bada:**

- Ez dira itzuliko edo aldatuko, ez da zorraren zenbatekoa zuzenduko.

ZER GERTATZEN DA ZERGA-ADMINISTRAZIOEK EGINDAKO ETEKINEN ONDORENGO ALDAKETEKIN?


- **Aldaketak etekinak txikiagoak direla adierazten badu:**

- Langileak bidegabe sartutakoa itzultzeko eskatu ahal izango du.

- **Aldaketak errendimenduak handiagoak direla adierazten badu:**

- Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetza Estatuko Erakundeak dagokion erregularizazioa ezarriko du, eta ordaindu beharreko zenbatekoak zehaztuko ditu.

Horretarako, Zerga-Administrazioek aldaketa horien berri emango diete Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiari eta Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetza Estatuko Erakundeari, bitarteko telematikoen bidez.



ZEIN KASUTAN EZ DIRA ERREGULARIZATZEN KOTIZAZIO-OINARRIAK?

Honako kasu hauetan aplikatutako oinarriak BEHIN BETIKO oinarri izango dira:



- Ofiziozko altak eta epez kanpoko altak.
- Gizarte Segurantzako prestazioen oinarri arautzailea kalkulatzeko kontuan hartutako kotizazio-oinarriak.
- Aldi Baterako Ezintasun-egoeran egondako aldiak.
- Haurdunaldian eta edoskitzaro naturalean arrisku-egoeran egondako aldiak.
- Adingabearen jaiotzagatiko eta zaintzagatiko atsedenaldiak.
- Bularreko haurra zaintzeko eskubidea egikaritzen den aldiak.
- Norberaren konturako langileen edo autonomoen jarduera iraunarazteko edo jarduera bertan behera uzteko aldiak, modalitate ziklikoan edo sektorialean, langile autonomo gisa altan egon behar duten kasuetan.

ARAUDIA

- *Urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretua, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren Testu Bategina onartzen duena.*
- *Urriaren 21eko 47/2015 Legea, itsas arrantzako sektoreko langileen gizarte-babesa arautzen duena.*
- *Uztailaren 26ko 13/2022 Errege Lege Dekretua, norberaren konturako langileentzako edo langile autonomoentzako kotizazio-sistema berria ezartzen duena eta jarduera uzteagatiko babesa hobetzen duena.*
- *Uztailaren 11ko 20/2007 Legea, lan autonomoaren Estatutuarena.*
- *Abenduaren 23ko 31/2022 Legea, 2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.*
- *PCM/74/2023 Agindua, urtarilaren 30ekoa, 2023ko ekitaldirako Gizarte Segurantzako kotizazioari, langabeziari, jarduera uzteagatiko babesari, Soldatak Bermatzeko Funtsari eta lanbide-heziketari buruzko lege-arauak garatzen dituen.*



**ZUZENDARITZA
PROBINTZIALA**

Helbidea

P.K.

Hiria

Telefonia

Posta elektronikoa

ALACANT	C/ Faro de Santa Pola, 2	03001	Alicante/Alacant	96 512 65 23	alicante.dirprov.ism@seg-social.es
ALMERIA	C/ Puerto Pesquero, s/n	04002	Almería	95 062 02 11	almeria.dirprov.ism@seg-social.es
ILLES BALEARS	C/ Moll Vell, 15	07012	Palma de Mallorca	97 172 56 06	illesbalears.dirprov.ism@seg-social.es
BARTZELONA	C/ Albareda, 1 - 13	08004	Bartzelona	93 443 96 00	barcelona.dirprov.ism@seg-social.es
BIZKAIA	Virgen de Begoña, 32 K/	48006	Bilbo	94 473 90 00	bizkaia.dirprov1.ism@seg-social.es
CÁDIZ	Avda. de Vigo, s/n	11006	Cádiz	95 625 17 03	cadiz.dirprov.ism@seg-social.es
KANTABRIA	Avda. de Sotileza, 8	39009	Santander	94 221 46 00	santander.dirprov.ism@seg-social.es
CARTAGENA	C/ Muelle Alfonso XII, s/n	30202	Cartagena	96 850 20 50	cartagena.dirprov.ism@seg-social.es
CASTELLÓ	Pl. Miquel Peris i Segarra, s/n	12100	Castellón de la Plana Castelló de la Plana	96 428 30 72	castellon.dirprov.ism@seg-social.es
CEUTA	C/ Muelle Cañonero Dato, 20	51001	Ceuta	95 650 02 40	ceuta.dirprov.ism@seg-social.es
GIJÓN	C/ Celestino Junquera, 19	33201	Gijón	98 532 72 00	gijon.dirprov.ism@seg-social.es
GIPUZKOA	Hermanos Otamendi, 13 K/	20014	Donostia	94 348 32 00	gipuzkoa.dirprov.ism@seg-social.es
HUELVA	Avda. Hispanoamérica, 9	21001	Huelva	95 925 74 11	huelva.dirprov.ism@seg-social.es
A CORUÑA	C/ Ramón y Cajal, 2	15006	A Coruña	88 190 98 00	acoruna.dirprov.ism@seg-social.es
LAS PALMAS	C/ León y Castillo, 322	35007	Las Palmas de Gran Canaria	92 849 46 45	laspalmas.dirprov.ism@seg-social.es
LUGO	C/ Rda. Músico Xosé Castiñeiras, 10 – bajo	27002	Lugo	98 222 50 10	lugo.dirprov.ism@seg-social.es
MADRIL	C/ Churruca, 2	28004	Madrid	91 591 99 00	madrid.dirprov.ism@seg-social.es
MÁLAGA	C/ Pasillo del Matadero, 4	29002	Málaga	95 195 57 45	malaga.dirprov.ism@seg-social.es
MELILLA	Avda. de la Marina Española, 7	52001	Melilla	95 176 43 00	melilla.dirprov.ism@seg-social.es
TENERIFE	Avda. de Anaga, s/n	38001	Sta. Cruz de Tenerife	92 259 89 00	tenerife.dirprov.ism@seg-social.es
SEVILLA	C/ Fernando IV, 1	41011	Sevilla	95 428 60 28	sevilla.dirprov.ism@seg-social.es
TARRAGONA	C/ Francesc Bastos, 19	43005	Tarragona	97 719 10 00	tarragona.dirprov.ism@seg-social.es
VALENTZIA	Av. del Port, 300	46024	Valentzia	96 335 99 00	valencia.dirprov.ism@seg-social.es
VIGO	Avda. Orillamar, 51	36202	Vigo	98 621 61 00	vigo.dirprov.ism@seg-social.es
VILAGARCIA	Avda. de la Marina, 23	36600	Vilagarcía de Arousa	98 656 83 00	vilagarcia.dirprov.ism@seg-social.es



INFORMAZIO GEHIAGO

Web Orria



Egoitza Elektronikoa



IGI aplikazioa deskargatu zure poltsikoan



GIZARTERATZE, GIZARTE SEGURANTZA ETA MIGRAZIO MINISTERIOA

Gizarteratze, Gizarte Segurantz eta Migrazio Ministerioaren argitaratze-programan
sarturiko argitalpena (2/2020 Errege Dekretua, urtarilaren 12koa)

Argitalpen honetan paper ekologikoa erabili da kontratazio
publikoaren ingurumen-irizpideen arabera.

<https://cpage.mpr.gob.es>



GOBIERNO
DE ESPAÑA
MINISTERIO
DE INCLUSIÓN, SEGURIDAD SOCIAL
Y MIGRACIONES

SECRETARÍA DE ESTADO
DE LA SEGURIDAD SOCIAL
Y PENSIONES



INSTITUTO SOCIAL
DE LA MARINA